

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

Jendaurrean jartzea Larrabea urbanizazioko etxeko edateko uraren eta saneamenduaren zerbitzuaren 2019ko hirugarren hiruhilekoari dagokion zerga errolda eta diru bilketako epea

Hamabost egun baliodunez, ediktu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, jendaurrean egongo da Larrabea urbanizazioko etxeko edateko uraren eta saneamenduaren zerbitzuaren 2019ko hirugarren hiruhilekoko zerga errolda, interesa dutenek aukera izan dezaten hura aztertzeko eta egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Errolda behin betiko onartutzat emango da epe horren barruan ez bada erreklamaziorik aurkezten.

Ordainagiriak 2019ko urriaren 15etik abenduaren 15era bitartean, egun biak barne, ordaindu ahal izango dira borondatezko epean.

Ordaintzeko era

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Legutioko Udalak zuzenean kudeatuko du zordunketa, ordainketa helbideraturik dagoen finantza erakundeetako kontuetan, 2019ko abenduaren 15ean.

Finantza erakundeetan helbideratu gabeko ordainketak (gaztigu oharrarekin):

- Udalaren bulegoetan, kreditu txartelarekin.
- Kutxabanken bulegoetan.
- Interneten bidez, Legutioko Udalaren webgunean (Nire Ordainketa).

Gomendioak

Nola bankuko helbideratzeen altak eta aldaketak, hala bizileku aldaketak, gerora jakinarazpenak egiteko, Legutioko Udalean izapidetu behar dira.

Epe hori igarota, premiamenduko betearazte bideari ekingo zaio, eta ordaindu gabeko kuotei Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak xedatutako erreklargua gehituko zaie.

Legutio, 2019ko urriaren 11

Alkatea

CÉSAR FDEZ. DE GAMARRA EGURROLA